



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

104 zenbakia
euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria**



**1976ko martxoaren 3a
2026ko martxoaren 17a**

LANGILE BORROKA DA BIDEA

**Sozialismoa eta
autodeterminazioa**





MARTXOAREN 3an 50. URTEURRENA

Langile klaseak diktadura garaitu zuen bere borroka eta odolarekin

Ezker Iraultzailea

50 urte bete dira 1976ko martxoaren 3an Gasteizko kaleak odolez busti zituen saraski lagzarritik. Pedro Maria Martínez Ocio, Forjas Alavesas enpresako 27 urteko langilea; Francisco Aznar Clemente, okindegiatako langilea eta ikaslea, 17 urte; Romualdo Barroso Chaparro, 19 urte; Jose Castillo, Grupo Arreguiko langilea, 32 urte eta Bienvenido Pereda, Diferencial taldeko langilea, 30 urte. Tiroz hil zituen polizia Zaramaga langile auzoko San Frantzisko elizan lau mila langileko asanblada batean parte hartzen ari zirela.

Poliziak bi mila tiro baino gehiago egin zituen, ehun eta berrogeita hamar zauritu baino gehiago eragin eta dozenaka atxilotu zituen. Gerora Alderdi Popularreko sortzaile izan zen Manuel Fraga Iribarne Gobernazio ministro frankistaren agindupeko poliziaen oldarraldi basatiaren erakusgarri bat izan zen.

Langileen altxamendua Gasteizen

Frankismoaren gainbehera krisi ekonomiko kapitalistarekin eta klase borrokaren gorakadarekin batera garatu zen. Datuak esanguratsuak dira.

1976ko urtariletik maiatzera bitartean 60.000 milioi pezetara atera ziren Estatutik, kapitalistek ihes egin zutelako, eta inflazioa %20ra iritsi zen (ogia %40 inguru igo zen urteko lehen hiruhilekoan). 1973an, 300.000 pertsona inguru zeuden langabezian, baina handik hiru urtera, milioi bat baino gehiagori eragiten zion. Testuinguru horretan, greben gorakadan islatu zen langileen kontzientziazio eta indar gero eta handiagoa eta diktadura frankistaren aurkako oposizioa. 1970-1972 bitartean 846.000 lanegun galdu ziren grebetan, 1973-1975ean milioi eta erdi, eta 1976an hamabi milioi baino gehiago.

1976ko urtarrilean egoera gori-gori zegoen. Madrilgo, Bartzelonako, Bilboko eta Estatuko gainerako industria-gune handiak gerran zeuden. Orduan erabaki zuen Arias Navarroken gobernua eskarmentu ematea eta indar erakustaldi sendoa egitea beharrezkoa zela.

Gasteizen, urtarrilaren 9an Forjas Alavesas enpresako langileek greba egin zu-

ten. Mevosako, Aranzabaleko, Gabilondoko, Ugoko, Orbegozoko eta beste hainbat enpresatako langileek segitu zuten haien eredu. Hogeita hamar enpresa baino gehiagok eta sei mila langile baino gehiagok koordinatu zituzten beren ekintzak. Hauteskunde demokratikoa bultzatu zuten beren ordezkarien batzarrean —Ordezkaritza Komisioak— eta aldarrikapen-plataforma bateratuak onartu zituzten. Langile demokraziaren erakustaldi hura jauzi kualitatiboa izan zen kapitalisten eta erregimenaren aurkako norgehiagokan.

Hautatutako Ordezkaritza Komisioak langile boterearen benetako enbrioi bihurtu ziren. Frankismoaren aparatu sindikala erabat arbiatu zuten, eta aparteko eronka planteatu zitoten Gobernuari ez ezik, baita frankismoaren oinordekoekin adostutako erreforma baten estrategia zuen ezker erreformistako buruzagiei ere. Erakunde erreformista horiek ez zuten erregimenaren porrota eta Espainiako Estatuaren eraldaketa sozialista prestatuko zituen haustura iraultzaile bat defendatzen.

Langile klasearen boterea ekintzan, eztabaidetan eta hartutako neurrietan frogatu zen. Burokrazia sindikalak ezarri nahi zituen mugetatik askoz harago zihoazen langile borrokariak.

Langileen aldarrikapen bateratuak gauzak argi utzi zituzten lehen momentutik:

- Soldata-igoera berbera denontzat.

Puntu hori funtsezkoa zen, portzentaiezkotzko igoerak planteatu beharreak, igoera linealak grebaren ardatz bihurtzen baitzituen.

- Soldata errearen %100, gaixotatua edo istripua izaneko gero.
- 60 urterekin erretiroa hartzea, soldata errealarekin.

- Lanaldia murriztea.

Handik zenbait egunetara beste puntu batzuk gehitu zitzaizkien, esperientziatik, errepresiotik eta patronalaren ekintza probokatzaileetatik abiatuta:

- Enpresa bakar batek ere ez du negoziatzen Gasteizen atxilotu bakar bat dagoen bitartean.
- Enpresa bat ere ez da lanera itzuliko Gasteizen kaleratze bakarra badago.
- Ez da negoziatzen, ez bada batzarrean aukeratutako ordezkariekin eta zuzenean patronalarekin.

Kaleratzeek eta atxilotetek mugimendua gehiago erradikalizatu zuten. Bi hilabeteko borrokaren ostean erabaki zen beharrezkoa zela greba orokor handi bat, eta martxoaren 3rako deitu zuten. Egun hartan, Gasteizko langile klase guztia Ordezkaritza Komisioen atzetik abiatu zen: fabriketako, merkataritzako, zerbitzuetako ia langile guztiek, ikasleek, etxeko andreak... hiria geldiarazi zuten. Goizean goizetik, polizia mobilizazioa geldiarazten saiatu zen, eta grebalarien eta manifestarien aurkako kargak hasi zituzten.

Sarraskia

Egun hartako arrakasta ikaragarria izan zen. Arratsaldeko 5etan San Frantzisko elizan batzar orokorra deitu zuten. Ordu-bete lehenago eliza gainezka zegoen, hiria erabat geldi eta barrikadaz betea. Langile auzo guztietan milaka gazte, emakume eta langilek beren etxetatik atera ziren hitzordu bateratura joateko.

Polizia, Barne Ministerioko arduradunen aginduei jarraituz, eliza barrura sartu zen kristalak apurtuz eta ke-potoak jaurtiz. Jendea lurrera bota zen babesteko, eta gehiago jasan ezin zutenek nekatuta eta erdi itota irten ziren kalera. Poliziak korridoreak antolatu zituen langileak kolpeka eta kulatadaka hartzeko, eta azkenean sarraskia antolatu zuen: noraezean tiro egin eta bost langile hil zituzten.

Lekuoen deklarazioak eta polizia beraren irriti bidezko transmisioak eztabaidak ezinak dira. Jarraian aipatzen dugun elkarrizketa polizialak ez du zalantzarako tarterik uzten:

— “Vamos a ver, J-2 haga lo que le había dicho. Cambio.”

— “...Me han puesto aquí cuatro coches en medio; los tendré que quitar, pero de todos modos si nos marchamos de aquí se nos van a escapar de la iglesia. Cambio.”

— “J-1. No interesa que Charli se marche del sitio donde está porque entonces se nos escapan de la Iglesia. Cambio.”

— “... Hemos entrado dentro, pero esto está muy mal. Si no, si no, vamos a tener que emplear armas de fuego. Cambio.”

— “Vamos a ver; Charli 0 para Charli, entonces el Charli que está ahí, J2,

J3 desalojen la iglesia y como sea. Cambio.”

— “Pero no podemos desalojar porque entonces está repleta de tíos, repleta de tíos, entonces por las afueras estamos rodeados de personal. Vamos a tener que emplear las armas de fuego. Cambio.”

— “Gasead la iglesia. Cambio.”

— “Date prisa. Que vengan los Charlis porque estamos rodeados de personal; al salir de la iglesia aquí va a haber un paleo. Vamos a tener que usar las armas de fuego. Seguro además, eh?”

— “Intervenid los tres juntos J-2, J3 y Charli 3 sacarlos como sea. Cambio.”

— “...”

— “¿Qué tal está el asunto ahora por ahí? Cambio.”

— “Te puedes imaginar; después de tirar igual mil, mil tiros pues y romper toda la iglesia de San Francisco, pues ya me contarás cómo está toda la calle y está todo. Cambio.”

— “Muchas gracias ¿eh? Y buen servicio, Bueno espera un momentito por ahí a ver si os podéis dirigir de un momento al punto cero. Cambio”

— “... en la plaza de Salinas y hemos contribuido a la paliza más grande de la historia. Cambio.”

— “Por cierto, aquí ha habido una masacre. Cambio.”

— “De acuerdo, de acuerdo. Cambio.”

— “Oye, pero de verdad una masacre, ¿eh?”

— “Ya tenemos, ya tenemos munición; ya tenemos dos camiones de munición, ¿eh? O sea que a mansalva... a por ellos, sin tregua de ninguna clase. Cambio”.

— “Sarraskia inflexio-puntua izan zen eta imajinatzen zaila den astindua eragin zuen. Gobernuak, armadak eta poliziak garaipena lortu zutela pentsatuz elkar zoriontzen zuten bitartean, langile klaseak ahal zuen adore guztia erakutsi zuen. Ehun mila pertsona baino gehiago joan ziren hiletara eta Gasteizko kaleetan barrena ibili ziren Gobernu Zibiletik zaurituak zeuden ospitaleraino, hildako langileak omenduz.

Berehala langile elkartasun uholdea piztu zen, grebak eta manifestazioak antolatu ziren Estatu osoan. Euskal Herrian, martxoaren 8an, hogeita hamarreko ha-

markadatik izandako greba orokorrik handiena izan zen: milioi erdi langilek baino gehiagok babestu zuten. Errepresioak bortitza izaten jarraitu zuen eta bi langile hil zituzten indar errepresiboek tiroz, bata Basaurin eta bestea Tarragonan. Baina borrokan ari zirenak apaldu beharrean, errepresioak haien amorrua eta borrokarako grina areagotu zituen.

Trantsizioko itunak iraultza saihesteko

Azkenik, borroka eragin zuten ia aldarrikapen guztiak lortu zituen Gasteizko langile klaseak, eta patronalak kontzesio ugari eta garrantzitsuak egin behar izan zituen, ez Gasteizen bakarrik, baita Hego Euskal Herri osoan eta Estatuan ere. Langile klasearen indarrak ezinezkoa zirudiena lortu zuen.

Kontzesioek, ordea, ez zuten giroa baretu. Mobilizazioak bere izaera politiko areagotu zuen. Amnistia, frankismoak zapaldutako askatasun eta eskubide demokratiko guztiak erabat berreskuratzea eta Espainiar Estatuako nazio zapalduen autodeterminazio eskubidea milioika langile eta gazte kalera atera zituen mugimenduaren bandera bihurtu ziren. Gasteizko sarraskiak ez zuen zapuztu altxamendu iraultzailea, aitzitik helburua askoz gertuago zegoen orain.

Ondorioetako bat Arias Navaroren dimisioa izan zen; Juan Carlos I.ak, 1976ko uztaillean, Adolfo Suarez buru zuen Gobernu berria izendatu zuen. Une hartan, Madrilgo eta Washingtoneko bulegoak Trantsizio Itunak ekarri zituen estrategiak prestatzen ari ziren, Santiago Carrillo eta Felipe Gonzalezen babes aktiboarekin.

Martxoaren 3ko sarraskia gertatuta ere, ez PCEko ez CCOOko buruzagiek, langile klasearen indar nagusiak izan arren, ez zuten greba orokor batera deitu Ariasen Gobernuaren aurka. Espainiar burgesiarentzat eta nazioarteko estrategien sektore erabakigarrietzat helburu nagusia zen altxamendu izaerako mobilizazio bihur zitekeen greba orokor bat saihestea. Ezin zitekeen onartu Espainiako Estatuak iraultza sozialis-

taren bideari ekitea, eta Gasteizko gertaerek eta hurrengo hilabeteetan izan ziren borroka eta greba uholdeek frogatu zuten indar korrelazioa gisa horretako altxamendu baten oso aldekoa zela.

1977ko urtarileko aste beltz hartan, Arturo Ruiz, Mari Luz Nájera eta Atochako abokatu laboralisten aurkako egindako sarraskiaren ondoren ere ez zuten greba orokorrerako deialdirik egin. Orduan ere, PCEko eta CCOOeko zuzendaritzak mantentze-lan handia egin zuten, eta gogor saiatu ziren mugimendua sortzen ari zen instituzionaltasun burges berriaren bidetik eramatea.

Amnistiaren legeak diktaturako krimenak zigorrik gabe utzi zituen eta Francok izendatutako Juan Carlosen monarkia babestu zuten Konstituzioak eta Moncloako Itunak. Kapitalaren estrategia izan ziren boterea langile klasearen eskuetara pasa ez zedin, eta ezker erreformistaren laguntza izan zuten horretarako.

Berrogeita hamar urte geroago, Gasteizko langileen aurkako krimenen arduradun politikoko eta polizialekako bakar batek ere ez du ordaindu. Ez da inolako justiziarik egon 78ko erregimenean. Horregatik, 1976ko langile mugimendu miresgarriari egin diezaiokegun aldarrikapenik eta tributurik onena langile klasea erabat askatu arte borrokan jarraitzea da, sozialismoaren eta herri eta nazio zapalduen autodeterminazio eskubidearen alde.

Polizia hiltzailearen eta estatuterrorismoaren balen ondorioez erori zirenen omenez, beren odolarekin, kartzela zigorrekin, errepresioari, torturerei, kaleratzei eta erbesteari aurre egiteko ausardiarekin egun mehatxupean dauden eskubide demokratikoak lortu zituzten guztien omenez.



Datorren martxoaren 17ko greba orokorra milaka eta milaka langileen eskutik dago jada. Egun horretan Hego Euskal Herriko langileek guztia geldiarazi eta kaleak hartuko ditu. Eta ez dugu soilik 1.500 euroko LGS propio baten alde borrokatzeko egingo; zerbitzu publikoei erasotzen, etxetxeko errentisten poltsikoak betetzen eta Ertzaintza gazteria antifaxista erpremitzera bidaltzen dituen patronal diruzalearen eta EAJren aurkako mezu irmoa bidaltzeko ere egingo dugu borroka.

Ezker Iraultzaileko kideok aktiboki bat egiten dugu euskal gehiengo sindikalaren deialdi honekin. Asanbladetan parte hartuko dugu eta gure lantokietan, auzoetan eta ikastetxeetan antolatuko dugu greba, arrakasta erabatekoa izan dadin. Borrokarekin eta ekintza batasunarekin indarrak elkar ditzakegu gure aldarrikapenak posible egiteko. Beraz, sektarismo-rik ez klaseko aurkariaren aurka indarrak batzeko.

Greba orokorra oso testuinguru garrantzitsuan deitu da, EAJk, PSEk, PPk eta VOXek joan den 2025ean Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako bi Herri Ekinmen Legegileri atea itxi eta gutxira: bata 138.495 sinadura zituen eta LGS propio baten igoeraren alde egitzen zuen; besteak 145.142 sinadu zituen eta gutxieneko pentsioa LGSarekin parekatzearen alde egitzen zuen.

Beraz, ondorioa argia da: aldarrikapen hauek bidezkoak bezain beharrezkoak dira, eta langile klasearen eta gazteriarren mobilizazio irmoenarekin baino ez ditugu lortuko.

EAJk eta PSEk hain harro haizatzen dituzten Hego Euskal Herriko datu makroekonomikoez ez dute langile familien bizitzaren benetako hobekuntzarik ekarri. Hitzarmen askotan osagarriek kurgatzen dituzte LGSaren igoerak eta etengabe hazten ari den inflazioak neutralizatzen ditu. Bizitzea bizirautea bihurtu da. Oinarritzko saskia gero eta garestiagoa da, eta zifra ofizialen arabera Euskadiko etxebizitzaren prezioa %35 igo da azken hamar urteetan, baina are handiagoa da erdiko krimenen arduradun politikoko eta polizialekako bakar batek ere ez du ordaindu. Ez da inolako justiziarik egon 78ko erregimenean. Horregatik, 1976ko langile mugimendu miresgarriari egin diezaiokegun aldarrikapenik eta tributurik onena langile klasea erabat askatu arte borrokan jarraitzea da, sozialismoaren eta herri eta nazio zapalduen autodeterminazio eskubidearen alde.

Denok M17greba orokorrera!

Bat egin Ezker Iraultzailearekin klase alternatiba erakitzeko, sozialismoaren alde, autodeterminazio eskubidearen alde!



BATU EZKER IRAULTZAILERA

ezkeriraultzailea.net

XXI. mendean, gizateria kaleitsu baten aurrean dago. Gerra inperialisten basakeria, murrizketa sozial gogorren bizkar ordaintzen den etengabeko berrarmatze militarista, herri palestinarren aurkako genozidio sionista edo ingurugiroaren suntsiketa. Argi dago burgesiak ez duela mugarik basakeria alde guztietara hedatzeko.

Egunez egun jasan behar izaten ditugu emakumeen aurkako indarkeria matxista, lan prekaritatea eta soldata miserableak, aise praktikatzen den espekulazioa bankuen eta errentarien poltsikoak betetzeko. Poliziaren errepresio basatiak nahiz lege gero eta antidemokratiko eta arrazistagoek errealitate hori finkatu besterik ez dute egiten.

Sistemaren krisiak eta politika "liberal" eta sozialdemokraten porrotak eragindako faktoreak dira eskuin muturraren eta totalitarismoaren gorakada bultzatzen dutenak. Horregatik, ez dugu faxismoa garaituko, hain zuzen, bidea zabalitzen dioten instituzio eta gobernu kapitalisten bitartez.

Langile klasearen eta gazteriaren borroka masiboan bakarrik oinarritu gaitezke. Horrela ikusi dugu AEBn ICEaren aurka Minneapolis-ko kaleak bete dituen mugimendu indartsuan edo Palestinako Holokaustoaren aurka egin diren mobilizazio eta greba orokor jendetsuetan.

Klase borrokak erronka itzela ezartzen digu, eta zuzenean seinalatzen du Ministro Kontseiluetan eroso kokatuta dagoen ezker hori, agen-

da kapitalista eta inperialistari men egiten diena. Hainbestetan saldu izan diguten ideia, hots, joko parlamentarioaren bidez kapitalismo zintzo bat lor daitekeela, ez da inolako aukera erreala.

Antolatzeko unea da

Sistema kapitalistarekin hautsi nahi dugunok badakigu gauzak ez direla aldatuko botoaren bidez bakarrik. Esperientzia historikoak erakusten du zapalduen benetako lorpenak antolamendu kontzientearen eta borroka gogorren emaitza izan direla.

Komunistak ez gara existitzen sistemaren logika defendatzen duten gobernuetan barneratzeko, oso aurrerakoak direla esaten badute ere. Komunista izatea ez da sare sozialetarako estetika bat. Komunista izatea oligarkia kapitalistaren boterearekin amaitzeko irmoki borrokatzea da, programa sozialista tinko batekin eta klaseko borroka metodoekin.

Indarren korrelazioa aldatzeko eta benetako aurrerapenak lortzeko bidea klase arteko borroka bultzatuko duen politika da, masa mugimendu handietan eta greba borrokarietan oinarrituko dena. Hori da klaseko kontzientzia sozialista garatzea ahalbidetzen duena.

Hau da, hain zuzen, Ezker Iraultzailearen proiektua: programa komunista bat duen masa alderdia eraikitzea, langile mugimenduan,

sindikalismo borrokalarian, ikastetxe eta unibertsitateetan, mugimendu sozialetan, borroka ideologiko eta teorikoan esku hartuz, eta inolako sektarismo antzurik eta doktrinarismo akademikorik gabe.

Komunista iraultzaileok faxismoaren aurkako fronte bakarreko politika defendatzen dugu, borrokarako prest dauden ezkerreko antolakunde guztiak batzen dituen. Halaber, borroka erabakigarri hau programa sozialista batekin egiten dugu, gizartean dagoeneko existitzen den aberastasun izugarria, eta orain milioi apur batzuen kontrolpean dagoena, langileen eskura jarritz. Ditugun behar larriak konpontzeko modu bakarra dago: monopolio handiak eta bankuak desjabetzea.

Benetan demokratikoa den gizarte sozialista batean historiako zaborrontzira bidaliko dira gerra inperialistak, klase, nazio, arraza eta genero zapalkuntza eta egungo kapitalismoaren gaitz guztiak.

Orain da unea. Antolatu gurekin Euskal Herriko Ezker Iraultzailean.

Sozialismoaren eta autodeterminazio eskubidearen alde!

Euskal Herri sozialista baten alde!
Internazionalismo proletarioaren alde!

Bat egin gure webgunearen edo Whatsapparen bidez 622 174 122
Ezagutu sakonago gure programa QR honetan

